

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

## 1049

*AGINDUA, 2020ko otsailaren 17koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzan goi-kargudunaren idazkariaren lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia bete gabe uzten duena.*

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2020ko urtarrilaren 2ko Aginduaren 3. oinarrian agindutakoari jarraituz (agindu horretan egiten da deialdia sail honetako lanpostu huts bat izendapen askearen bidez betetzeko), honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Bete gabe uztea goi-kargudunaren idazkariaren lanpostua: Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, kabinete eta Komunikazio, 520010 kodea, 190. dotazioa.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, haren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko agindua eman duen organoari, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiari, bi hileko epean. Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da errekurtsoak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 17a.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,  
SONIA PÉREZ EZQUERRA.